

Irailak 27, barikua

Amets Proiektua



Amets Proiektua behar artistiko eta pedagogikotik sortu da; hain zuzen ere, Musikenen, eta, zehazki, Aitzol Iturriagagoitia artista eta pedagogoaren biolin klaseetan egiten den lana herritarrei erakusteko. Proiektu honen helburua musikaren artea gizarteari hurbiltzea da, eta, batez ere, herritarrei erakustea Musikene - Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegiko hari-instrumentuko ikasleek lortzen duten maila aparta.

Proiektuaren baitan kolaborazioak egin ohi dira. Oraingo honetan, David Apellániz, nazioarteko ospe handiko artista eta Murtziako Goi Mailako Kontserbatorioko katedraduna, eta haren ikaslea Margarita Guerrero, izango ditugu gurean.

Amets Proiektuaren oinarria, nagusiki, Musikeneren ingurune hurbilean hainbat estilo eta generotako kontzertuak eskaintzea da. Hori dela eta, oraingo honetan programa erromantikoa aurkezten dugu: Felix Mendelssohn-Bartholdyren hari-oktetoa.

1. biolina: Aitzol Iturriagagoitia

2. biolina: Irene Mena

3. biolina: Josep Alborch

4. biolina: Gontzal Rodriguez

1. biola: Esteban Ramírez

2. biola: Adela Casas

1. biolontxelo: David Apellániz

2. biolontxelo: Margarita Guerrero

EGITARAUA

Octeto Mi bemol Mayor Op.20

I Allegro Moderato, ma con fuoco.

II Andante

III Scherzo: Allegro leggierissimo

IV Presto